



Lezoko Unibertsitateko Udala

2021PE070001

## ALKATEAREN D21/0408. DEKRETUA

---

### UDALTZAINEN LAN POLTSA ERATZEKO DEIALDIA BERTAN BEHERA UZTEA

---

Jaso berri dugu, Lezoko udalak martxoaren 10ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zituen udaltzainen lan poltsaren oinarriak direla eta, Toki Administrazioetako Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzak igorritako idatzia, oinarrietako zenbait atalek bitarteko funtzionarioak hautatzeko jarraitu beharreko prozedura ez dituztela betetzen adieraziz.

Igorritako idatzia aztertu ondoren, udal teknikariek udaltzainen lan poltsa eratzeko deialdia bertan behera uztea proposatu dute.

Horiek horrela, hona, alkatearen ERABAKIA:

BAT: 2021eko otsailaren 16an alkateak D21/0176 dekretuaren bidez onartu eta ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean martxoaren 10ean argitaratu zen Lezoko Udalean udaltzainen lan-poltsa sortzeko deialdia bertan behera uztea.

BI: Indarrrik gabe uztea orain arte aipatu lan poltsa eratzeko eman diren pausoak.

HIRU: Dekretu honen berri ematea.

Erabakiaren aurkako errekurtsioak:

a) Auzitara jo aurretik, eskatzaileak, hala nahi izanez gero, erabakia berraztertzeke errekurtsioa aurkez dezake 39/2015 Legearen arabera.

- Horretarako, hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.
- Errekurtsioa aurkeztekotan erabakia hartu duen organoarengana jo behar da.

b) Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake zuzen-zuzenean.

- Horretarako, bi hilabeteko epea dauka, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

- Errekurtsioa aurkeztekotan, EAeko Auzitegi Nagusiko administra-zioarekiko auzitarako Donostiako epaitegira jo behar da.

Sinatzailea                      Alkatea

Dokumentu hau elektronikoki sinatu da. Honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara:  
<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/53/AAAAED45J.pSnc>